

Bi nerabe atxilotu dituzte, Sexting - ziberbulling kasu batean nahastuta.

*Sexting bideo batek azaleratu zuen dena: adingabeko neskato bat nahas-mahasean bortxatu eta ume-pornografiatarako erabili zuten (sexting: telefono zelularren bidez eduki sexuala eta pornografikoa bidaltzea). Batxilergoko ikastetxe bateko ikasleen artean gertatu zen, Gustavo A. Madero ordezkariaren.*

## SDPNOTICIAS.COM ERREDAKZIOA

Mexiko hiria.- Kapitalina Prokuradoretzako poliziak bi gazte atxilotu ditu **bortxaketa eta pornografia** leporatuta: Eduardo Leopoldo Popoca Vázquez, 19 urtekoa, eta Adán Chávez Rodríguez, 24 urtekoa.

Atxiloketara eraman dituen haria sexting-bideo bat izan da (eduki sexuala eta pornografikoa bidaltzea telefono zelularren bidez). Gustavo A. Madero ordezkariaren batxilergo-ikastetxe bateko ikasleen artean zegoen eginda, eta, handik tiraka, agertu zen neska bat nahas-mahasean bortxatu zutela eta pornografiatarako baliatu zutela.

Adingabeko neskato batek salatu zituen erasotzaileak, bideoa froga gisa erabiliz. Gero, ikerketa-poliziak erasotzaileak atxilo eraman zituen; haietako bostek 17 urte dituzte (oraindik ez dituzte atxilotu), eta beste bi adin nagusikoak dira (Eduardo Leopoldo Popoca Vázquez, 19 urtekoa, eta Adán Chávez Rodríguez, 24 urtekoa). Azken bi horien etxean egin zuten “festa”; han eraso zuten laguna, lau botila tekila edan ondoren.

Gazteek grabazioa mugikor batetik bestera bidali zuten, ikasle batetik bestera ibili zen, harik eta biktimaren lagun batengana iritsi zen arte. Biktimari hark esan zion zer ari zen gertatzen. Neskak ez zekien zer jazo zen apirilaren 15eko lagun-bilkura hartan, baina hara non ikusten duen, grabazio hartan, nola bortxatu zuten ikastetxeko lagun batzuek.

Barruti Federaleko Justiziako Prokuradoretza Nagusiko (PGJDF) sexu-delituetako fiskalak, Juana Camila Bautista andereak, adierazi zuen “gazteek beren zelularren bidez beren burua biluzik, erdi-biluzik edo jarrera konprometigarrietan filmatzeko ohitura dutela edo hartzen dutela, eta, ondoren, grabazioak beren eskolako kideen zelular guztietan batera eta bestera ibiltzen direla”.

“Bideoa eskolako ikasleen artean dabil; zelularrez bidaltzen zituzten. Hori da sextinga. Oso-oso gogorra da bideo hori, beldurgarria. Neska konorterik gabe dago, eta garbi-garbi ikusten da nola bortxatzen duten”. Hala esan zuen PGJDFko Sexu Delituen Fiskalak, Juana Camila Bautistak.